

Emakumeen arreta zerbitzua indartu dute udalek

Konfinamendu egoeraren ondorioz indarkeria matxista areagotu daitekeela uste dute; laguntza eta telefono zenbakiak jarri dituzte herritarren eskura //

**Iurreamendiko
egoera
«ulertezina»
dela diote**

Langile batek salatu du informazio nahikorik ez dutela //

**Funtsezkoak
ez diren
jarduera
guztiak, geldi**

Koronabirusean 144 herritarrek eman dute positibo eskualdean //



ATARIA

«Irabazitakoagatik baino gusturago nago ezagutu dudan jendearengatik»

IBON MUGERZA SURFLARIA

AEBn jokaturako Munduko Surf Egokitutako Txapelketatik laugarren postuarekin eta kobrezko dominarekin itzuli da tolosarra //



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA , GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazio guztia:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484

943 69 02 97

Josu Artutxa Dorronsoro

Covid-19 birusagatik kutsatutako eskualdeko herritarren kopuruak 24 orduren buruan orain arte izandako positiboaren gorakada baxuena errepikatu du; martxoaren 21etik 22ra ere hiru kasu gehiago izan ziren. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak atzo eguerdian emandako informazioaren arabera (datuak igandeko 20:00etan zenbatutakoak dira), 144 dira koronabirusa duten Tolosaldeko herritarrak. Horietatik ia erdia Tolosan dago.

Larunbateko datuekin alderatuta, Iruran eta Amasa-Villabonan kasu bana gehiago zenbatu dituzte, eta Leaburun ere atzerman dute koronabirusagatik gaitxotu den lehen herritarra. Asuncion Klinikari dagokionez, solairuetan ospitaleratuta 23 gaixo daude; bat gehiago. 13 alta eman dituzte, horietako bi ZIU-n (Zainketa Intentsiboetako Unitatean) zeuden.

IA ERABATEKO GELDIALDIA

Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidenteak larunbatean iragarri zuen funtsezkoa ez den jarduera oro etengo zutela. Denbora luzez itxaron ondoren, igandean, gaueko 23:35ean argitaratu zuten neurri hori arautzen duen dekretua Espainiako Aldizkari Ofizialean, Ministro Kontseiluak onartu ondoren. Funtsezko jardueretan aritzen ez diren langileak etxean geratuko dira, apirilaren 9ra bitarte. Atzo jarri zen martxan dekretua, baina gobernuak 24 orduko luzapena eman zien berehala jarduera etetea ezinezkoa zaien enpresei, itxialdira egokitzeke.

10/2020 dekretuaren ezaugarri batzuk jakinak ziren, esaterako, indarrean dagoela ordaindutako baimen berreskuragarria. Aurrerantzean, langileek ohiko soldata jasoko dute, eta egin gabeko lanorduetan osasun larrialdia amaitu ondoren egingo dituzte, mailaka, eta denboran banatuta. Langileek enpresarekin adostu ahal izango dute lanorduetan nola gehitu (egunero ordu erdi gehiago eginez, esaterako); abenduaren 31 arteko epea izango dute horretarako. Hainbat hedabidek zabaldu dutenez, enpresek ordainduko dute baimen hori, eta horregatik, gero berreskuratuko dituzte lanorduetan langileek.

Zalantza nagusia, ordea, gobernuak funtsezkotzat jotzen dituen jarduerak zein ziren jakitea zen, zer sektoreri eragiten zion. Bada, eranskin batean zerrendatu zituzten jarduera horiek; 25 dira guztira. Tartean, hamaika-



Euskal gehiengo sindikalak deituta, ostiralean, oinarritzko jarduerak eteteko eskatuz, protesta egin zuten langileek. ATARIA

Koronabirusagatik kutsatutako 144 herritar, eskualdean

Funtsezkoak ez diren jarduera guztiak eteteko agindua eman du Espainiako Gobernuak; ATARIA-k lanean jarraituko du, beharrezko neurriak hartuta.

garren puntuan, prentsan lan egiten dutenak eta komunikabideak saltzen, inprimatzen eta banatzen dituztenak izendatzen dira. Hori dela eta, ATARIA-k lanean jarraituko du; ez du jarduera etengo, eta beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuz, eskualdean gertatzen denaren berri emango du.

Sanchezen gobernuak Aste Santuko jaiegunak aurreratzea proposatzen du, langileek baimena erabili ahal izateko. Ohiko opor egun hauen atarian, mugikortasuna modu zuzenagoan etetea, eta horren ondorioz, ospitaleen eta zainketa intentsiboetako unitateen gaineko presioa arintzea dira helburu nagusiak. Gauzak horrela, konfinamendua gogortu dute, gaitzaren hedapena saihestu eta osasun sistema kolapsatzea ekiditeko. Gobernuaren esanetan, kutsatuen gailurra igaro ondoren arazoak izango dituzte ZIU-etan.

KASUAK, HERRIZ HERRI

Tolosa. 79.
Ibarra. 16.
Amasa-Villabona. 15.
Irura. 12.
Anoeta. 7.
Zizurkil. 4.
Altzo. 3.
Bidania-Goiatz. 3.
Aduna. 1.
Alegia. 1.
Alkiza. 1.
Asteasu. 1.
Leaburu. 1.

POZA ETA HASERREA

EAJk gogor erantzun dio Sanchezen iragarpenari. Sare sozialetan bidez, «harridura» agertu dute jeltzaleek, «erabakia hartzeko moduagatik, jarduera hauek zein diren zehaztu gabe». Gobernuak «leialtasuna erakutsi dioten» erakundeekiko «gehiagizko aldebakartasunez» eta «errespetu eta komunikazio faltarekin»

jokatzen ari dela salatu du. EH Bilduk, berriz, erabakia berandu heldu dela dio. Maddalen Iriarte Legebiltzarrerako lehendakari-gaiak, ordea, txalotu egin du. «Guztion osasuna lehenestea hasieratik aldarrikatu dugunontzat zentzuzko albistea da».

Bestetik, Confebasketik gaitzetsi egin du Sanchezen erabakia; «arduragabetzat» eta «hausnargabetzat» jo dute. Koronabirusak ekarriko duen krisi ekonomiko eta sozialaren aurrean beharrezkotzat jo dute gutxieneko ekoizpen bati eustea. Sindikatuek ontzat jo dute erabakia, baina ez daude ados langileentzat izango dituen ondorioekin. ELA ez dator bat galdutako orduak aurrerago berreskuratu beharrezkin; LABek salatu du etenaldia langileen kontura dekretatu duela gobernuak. CCOOk, bestalde, begi onez ikusi du: «osasun larrialdia aurre egin, eta herritarren osasuna babestea da lehentasuna».

FUNTSEZKO 25 JARDUERAK

1. Garraioa, aduanak, energia, petrolio eta gas hornidura bermatzekoak.
2. Premiazko ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa.
3. Janaria eta xera eramaten duten ostalaritza saltokiak.
4. Osasun teknologiaren eta materialen nahiz erietxeetako ekipamenduen ekoizpena eta banaketa.
5. Funtsezkotzat jotako jarduerak egoki funtzionatzeko beharrezko hornidura eta materiala eskaintzen dituen manufaktura industria.
6. Pertsonen eta merkantzien garraioa.
7. Espetxe Institutuzioak, babes zibila, itsas salbamendua, suhiltzaileak, meatzeen segurtasuna, bide segurtasuna eta segurtasun pribatua, segurtasunezko garraioa, alarmei erantzuteko eta oinarritzko zerbitzuak ematen direla bermatzeko.
8. Armadarentzako materialaren eta ekipamenduaren hornidura.
9. Osasun zentroak; adinekoen, adingabeen eta mendekotasun edo ezgaitasun bat dutenen artatzea; COVID-19ari aurre egiteko ikerketa eta garapen zentroak, eta horiei zerbitzuak ematen dizkieten enpresak; hileta zerbitzuetako beharginak.
10. Animalien osasun arreta.
11. Prentsa eta komunikabideen salmenta, inprimatzea eta banaketa.
12. Finantza zerbitzuak; bankuak, aseguruak eta inbertsioak.
13. Telekomunikazioa eta ikus-entzunezkoak; beharrezko informatika zerbitzuak; sare eta instalazioetako zerbitzuak.
14. Genero indarkeriaren biktimak babesteko eta artatzeko zerbitzua.
15. Bertan behera geratu ez diren auzibideak, eta bertan abokatu, prokuradore, gizarte langile, itzultzaile eta psikologo modura ari direnak.
16. Lege aholkularitza, gestoria administratiboa eta lan arriskuen prebentzioa, premiazko kasuetan.
17. Notariotza eta erregistroak, solilik ezinbesteko zerbitzuetarako.
18. Matxuren premiazko konponketa; eta garbiketa eta mantentzea (hondakinen bilketa oro).
19. Iheslarietako harrera zentroak eta migranteentzako zentroak, Espainiako Estatu Idazkaritzak diruz lagundutakoak badira.
20. Ur hornidura, depurazioa, garraioa, arazketa eta saneamendua.
21. Meteorologia zerbitzua emateko beharrezkoak diren zereginak.
22. Estatuak izendatutako operadoreak emandako posta zerbitzua.
23. Osasun materialen inportazioa eta hornidura, logistika, garraioa, biltegiratzea, eta aduana zirkulazioa.
24. Internetez, telefonoz edo posta bidez erositako produktuen banaketa eta entregatzea.
25. Premiazkotzat jotako zerbitzuetako beste edozein sektore.

Erredakzioa Tolosa

TOLOSALDEKO ATARIA-k Iurrea-mendiko langile batekin hitz egin du bertan gertatzen ari dena ezagutarazteko asmoz. Izan ere, Tolosako adinekoen egoitzako egoera ez da batere samurra. Langileak esan duenez 145 egoiliar daude eta 140 bat langile. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako azken datuen arabera, 40 egoiliar in-guruk eman dute positibo COVID-19an. Langileak salatu du datu horrek ez duela errealitate osoaren ikuspegia ematen.

<<EGOERA ULERTEZINA>>

Langileak dio «egoera tristea, negargarria eta ulertezina» dela. «Bizitza guztia lanean eman ondoren gure aiton-amonak ez zuten egoera hau merezi».

ATARIA-rekin hitz egin zue-nean, 35 egoiliar ziren kutsatuak eta datuak ikusita galdera bat egiten du: «Zergatik Iurrea-mendin horrenbeste kutsatu?».

Bere ustez gauzak «oso gaizki» egin dira hasieratik eta langileak esandakoa egitera mugatu direla dio, «nahiz eta egiten ari ginen horrekin erabat konbentzita ez egon».

Protokoloak aldatzen dizkietela ere salatu du langileak; «aiton-amonak gora eta behe-ra, harantz eta honantz ibili ditugu bazter guztiak kutsatuz. Informazio finkorik ez dugu izan, pasiloetan entzuten genuena soilik. Senideak orain dela astebetara arte hor ibili dira barrura eta kanpora...».

Koronabirusa atzemateko proben inguruan ere hitz egin du. «Iurrea-mendiko bertako langileei proba bertan egin zaie inongo arazorik gabe; azpikontratatuak, aldiz, oztopoak jarri zaizkie bertan egiteko. Sintomarik ez badugu ez dagoela egin beharrik esanez, posible denean, dakigun bezala,



Tolosako Iurrea-mendi egoitzan kutsatuen kopurua altua da, eta langileak kezkatuta daude. I. TERRADILLOS

«Iurrea-mendin egoera tristea, negargarria eta ulertezina da»

Tolosako Iurrea-mendi adinekoen egoitzan lan egiten duen langile batek salatu duenez, «langileek ez dute informazio nahikorik jaso eta kezkatuta daude».

sintomarik ez izan eta eramaila izatea». Langileak dio langile guztien %90 dela azpikontratatuakoa.

<<HASERRE GAUDE>>

«Haserre gaude, oso haserre, Eusko Jaurlaritzarekin, ikusi zer zetorren eta neurriak har-

tu ez dutelako, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin nola bideratu jakin ez duelako, Osakidetza-rekin test azkar bat oraindik iritsi ez delako eta Iurrea-mendiko zuzendaritzarekin hasiera hasieratik langileen %90 diren azpikontratatuak barnebilduko dituen krisi-ma-

hai bat osatu ez duelako». Eta gaineratu du: «Haserre gaude, baita ere, orain dela bi egun bi orduko ikastaroa (bizi dugun egoeran) eman zigutenekin, EPIak desaprobatzen ari girela eta gaina iristen zenean ez genituela izango esanez. EPIak orain dela bi aste izan

ADINEKOEN EGOITZETAKO KUTSATUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak larunbategiaren zabaldu zituen azken aldiz, Gipuzkoako egoitza publikoetako kutsatu eta hildakoen datuak. Edizio hau ixterako, datuak ez zituen eguneratu oraindik. Gipuzkoako 65 egoitzetako datuak biltzen ditu Foru Aldundiak, eta larunbateko datuen arabera, adinekoen zentroetan bi hildako eta zortzi COVID-19 kasu positibo berri eman ziren, eta beste bat desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideetan. Gipuzkoako egoitzetan guztira 82 ziren orduan birusak eragindako adineko pertsonak eta 14 desgaitasuna dutenak. Hil diren bi lagunek 87 urte zituzten, eta Irungo Caser Residencial Anaka eta Arrasateko Iturbide egoitzetako egoiliarak ziren. Bien osasun egoera «oso delikatuak zen, eta zuten adinak eta aurretik zituzten patologiek eragina izan dute», azaldu zen Eider Mendoza bozerra-maileak. «Gure babes osoa adierazi nahi diegu hildakoen familiei momentu latz hauetan, eta biziki eskertzen dugu beraien elkarlana, bai eta Gipuzkoako egoitza guztietako talde profesionalak egiten ari diren lana», nabarmendu zuen.

Bestalde, positibo berriak Zarauzko Santa Ana egoitzan (hiru kasu), Beasaingo Arangoitin (hiru kasu), Tolosako Iurrea-mendi egoitzan (kasu bat) eta Irungo Caser Residencial Anakan (kasu bat) eman ziren. Positibo eman zuen eta desgaitasuna duen pertsonaren kasua Donostiako Iza egoitzan dago.

bagenitu, erabakiak ondo hartu izan balira, orain ez ginateke kopuru hauetaz hitz egiten ariko». «Egia da, izurrite bat iraganeko gauza zela eta ez zela gehiago etorriko uste genuela. Ea honekin ikasten dugun, eta konturatzen garen, maskara on bat tren azkarra baino garrantzitsuagoa dela».

GUTUNA

Beste behin ere, errealitatea ezkutatzen ari zarete

Goizean telebista piztu eta Eider Mendoza azaldu da (Gipuzkoako Foru Aldundiko bozerra-maileak), bere lehentasuna zahar egoitzak direla esanez, jarraipen indibidualak egiten ari direla, langileria errefortzatu dutela,

sistemak ondo funtzionatzuten duela... Gezurra!

Olatz Peon Tolosako alkatea denari ere entzun diot, hartu beharreko prebentzio neurriak hartzen ari direla: garbiketa, bertakoei eta langileei frogak eta prebentziorako materiala iritsi zaiela. Orain? Ia 15 egun pasa dira konfinamendua hasi genuenetik!

Hartu beharreko prebentzio

neurriak oso berandu iritsi dira eta ez dira nahikoa, langileen osasuna dago jokoan eta noski, bertan bizi direnena ere bai.

Presiopean, urduri, beldurrez, lana bukatu ezinik eta langile guxtiagorekin ari dira lanean, honek adinekoen egoitza batean eta egoera honetan duen eraginarekin. Egunetik egunera baja gehiago daude, eta hauek ezin kubritu dabilta, jai egunetan lanera joateko

eskatuz (egoera normal batean minimoetan ibiltzen dira).

Testak, 'kutsatutako' solairuan sintomak zituzten langileei eta bertan bizi direnei soilik egiten hasi ziren, eta Iurrea-mendin langile gehiago daude, bertakoekin arreta zuzena ez duten arren, 'kutsatutako' solairura igotzen direnak. Garbitzaileak kutsatuta dauden gaixoen arrokekin kontaktu zuzena dute, hau egiteko beha-

rezko neurriak hartu gabe. Egoera jasangaitza da, langileen artean baja asko egon dira, egin dituzten frogak oso berandu egin dituzte, edo zuzenean ez dituzte egin, esaten ari diren positiboak ez dute errealitatea islatzen. Nahikoa da!

Tolosako Iurrea-mendi egoitzan lan egiten duen emakume zoragarri baten alaba naiz.

Iratilbarzabal Ibarra

Indarkeria matxistak ez du berrogeialdirik

Konfinamendu egoerak indarkeria matxista areagotu dezake, eta hainbat udalek herritarren eskura jarri dituzte laguntza eta telefono zenbakiak



Konfinamendu egoeran ere salatu egin behar da indarkeria matxista. ITZEA URKIZU

Eneritz Maiz Etxarri

Ez da berria etxean egotera behartu dituela herritarrak koronabirusaren gaitzak, eta kezka sortu du, indarkeria matxistak ez duelako berrogeialdiaz ulertzen. Hau da, elkarbizitzara behartu ditu herritarrak, eta isolamenduak egoera ezatseginak areagotu ditzake. Horren aurrean, indarkeria egoerak salatzeke hainbat udalek telefono zenbakiak jarri dituzte herritarren eskura.

Esaterako, Ibarran, indarkeria matxistaren aurkako protokoloa egina dute, eta martxan dago. Garbi dute, konfinamendu egoera honetan indarkeria egoerak biziko direla, eta «konfinamendu egoera hau bizi dugulako behintzat, ez daitezela gelditu abisatu edota salatu gabe», azpimarratu du Xabier Jauregi gizarte langileak. «Antena guztiak martxan jarrita ditugu, eta lanean gaude. Sare guztia martxan dugu: adineko, menpeko pertsona, ...». Udala lanean dagoela ekarri du gogora, eta gizarte zerbitzuak eta udaltzaingoa, besteak beste, herritarren beharrei erantzuteko lanean ari direla. Ibarrako Udalaren telefono zenbakia 943 67 11 38 herritarren eskura jarri dute.

Tolosako Udalak ere lanketa egin du egoeraren aurrean: «Kontziente gara COVID-19ak sortu duen isolamendu egoeraren ondorioz indarkeria matxista egoerak areagotu daitezkeela, eta hori kontuan izanik, indarkeria matxista egoeran dauden emakumeen arreta zerbitzua indartu egin dugu».

«Zerbitzu eta profesional ezberdinekin koordinatuta, 24 orduko zerbitzu-arreta eskaintzen ari gara. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeek, une oro eta edozein egoera edo larrialdiaren aurrean, Tolosako Udalerako 010 edo 943 65 44 66

900 840 111

INFORMAZIOA ETA ARRETA

Etxeko indarkeria edo sexu erasoaren biktima diren emakumeentzako informazioa eta arreta zenbakia da. Edozein motako indarkeria fisiko, psikologiko eta sexualen biktima diren emakume guztientzako da. Egunean 24 orduetan. Nor zaren galdetu gabe, arretaz entzungo dizute. Deia doakoa da, eta ez da fakturan agertuko. Familiakoei, ingurukoei eta profesionalei ere erantzuten diete.

(Herritarren Arreta Zerbitzua) edo Udaltzaingora 943 67 58 58 deitu dezakete».

Arreta integral bat emateko, «beharrezkoa da konfinamendu egoera honek sortu ditzakeen arrisku egoera eta faktore berriak antzematea, eta emakume bakoitzak izan ditzakeen beharrik identifikatzea», azaldu dute. Horretarako, bereizketa bat egin dute: alde batetik, horrelako egoera batean bizi diren eta jada Gizarte Zerbitzuetatik identifikatuta dituzten emakumeak daude, eta beste aldetik, identifikatu gabeko emakumeak. Identifikatuta dituztenen arreta eta jarraipena indartu egin dituzte, irizpide ezberdinak kontuan hartuta: erasotzailearekin elkarbizitza dagoen edo ez; segurtasun neurriak dituzten edo ez; arreta psikologikoa duten, edota adin txikiak dituzten.

Beste aldetik daude identifikatu gabeko emakumeak: «Hauengana iristeko komunikabide ezberdinetatik mezua zabaldu da horrelako egoera batean aurkituz gero martxan jarri diren telefono zenbakietara deitzeko».

Tolosako herritarrei deialdia egin diete mezua zabaltzen laguntzeko, ahalik eta pertsona gehienengana iritsi dadin mezua: «Modu honetan, aukera gehiago izango dugulako telefono zenbaki horiek emakume hauen eskuetara iristeko. Gainera, azpimarratu nahi dugu horrelako egoera batean aurkitzen den emakume bat ezagutuz gero, gurekin harremanetan jarri daitezkeela edozein herritar telefono zenbaki horietara deituz».

Indarkeria matxista jasaten duen emakume baten senidea edo laguna izanez gero, eta ez bazara harekin bizi, laguntzeko hainbat gauza egin ditzakezula gogoratu dute Tolosako Udaltetik: «Telefonoz edo mugikorra-

ren bidez deitu egunero hainbat aldiz, eta jakinarazi berarekin zaudela; ez dagoela bakarrik. Ondo dagoela ziurtatu, eta antzematen baduzu arrisku larrian dagoela eta bizitza galduko duen beldur bazara, Gizarte Zerbitzuetara, Ertzaintzara edo Tolosako Udaltzaingora deitu».

ZEIN PAUSO EMAN

Etxean erasotzailearekin bizi den emakume bati gomendioak ematea ez dela erraza onartzen du udalak, baina horrelako egoera batean dagoen emakumeak, «ahal duen neurrian, ondo pentsatu behar du zer estrategia garatu edo zer pauso eman. Garrantzitsua da izua erabakiez ez jabetzea, litekeena da eta horrek bizitza arrisku handiagoan jartzeko», diote.

«Garrantzitsua da, era berean, bizitzen ari den tratatu txar horien zantzuak edo seinale ikusgarriak identifikatzea. Esate baterako, bikotekideak beldurtu egiten du edo haserretu egingo den beldur da emakumea; edo bere buruarekiko mesfidantza sortzen dio; edo konfiantzako taldeetik edo gertun dituen lagunengandik isolatzen saiatzen da; edo egiten duen guztia kontrolatzen dio, hau da, norekin hitz egiten duen, zenbat aldiz, eta abar; edo bere gorputzarekin gaizki sentiarazten du; edo bere gorputzarekin gaizki sentiaraz dadin saiatzen da; edo emakumearen emozioen edo osasunaren erantzukizuna hartzen du bikotekideak edota isiltasuna zigor gisa erabiltzen du».

Garrantzitsua da, halaber, «bere burua egoera okerrean ikusten saiatzea, hala, egoera larri bat gertatzen bada, zer egin dezakeen jakiteko eta baita bikotekideak erabiltzen duen indarkeria mugatzeko ere», azpimarratu dute.

Eta garrantzitsutzat dute, era berean, «mugikorra aldean izatea denbora guztian».

Azkenik, «gogoan izan behar du etxetik ihes egiteko estrategia», argitu dute. Arrisku egoeran dagoela pentsatzen badu erasotuak, laguntza eskatu behar du, 010 telefono zenbakira deituta. «Hala ere, indarkeria fisikoa gertatzen bada eta etxetik ezin bada atera -haurrak edo mendeko pertsonak harekin badaude- saiatu leku seguru batean egoten, eta 'sua, sua' oihukatu», aholkatu dute.

ZIBERINDARKERIA

Prebentzioa dela babesteko modu nagusia azpimarratu dute Tolosako Udaletik, eta segurtasun neurri praktiko batzuk aipatu dituzte: gailu mugikorrak eta ordenagailuak pasahitzarekin blokeatzea; gailu elektronikoei birusen aurkako softwarea instalatzea, gordeta dagoen edozein informazio konfidentzial hobeto babesteko; eta, batez ere, webcam-a erabiltzerakoan, hura estaltzea. *Sexting* argazkiak bidaltzeari edo pasahitzak partekatzeari dagokionez, aholkua argia da: besterik gabe, ez da egin behar. Eta, gehitu dute: «Bikote baten haustura baten ondoren, gailu guztien pasahitzak aldatu egin behar dira».


Azken aholku bati jarri diote azpimarra: «Baldin eta edozein eratako ziberindarkeria jasaten ari bada norbait, garrantzitsua da gogoan izatea berak ez duela egoera hori eragin, eta, beraz, senide eta lagunei jakinarazi egin behar die zer gertatzen ari zaion, jakitun izan daitezten. Eta gogorarazi behar da, era berean, eraso salatu egin behar dela, fisikoa izan, digitala izan, eta ez dela inolako frogarik suntsitu behar, nahiz eta oso konprometitua izan».



GARRAIOAK

MMZOEHHPMJAEVV
NTXZIXABWIIYYEBB
UHYWFUPAZWXDWDB
WDPCVCLTQJJZIB
FAVKNCNZDGFOT
HKITSASONTZARN
UEVDLAEXTOKCNAT
FMGURXJLVLAWTKS
YBBATUCUESNQKTJ
UNCZZWGTUQEZDOK
AZWDQKAUBARFWRU
DAFONBIIMLTVKEN
VNHLURWNTXOZIA
NBGQEAZRAKOVZDO
LQZUTVFXFKDPAQO

ANBULANTZIA
BIZIKLETA
GURDIA
HEGAZKINA
ITSASONTZIA
KOTXEA
TRAKTOREA
TRENA



Imanol Garcia Landa Tolosa

AEBn jokaturako Munduko Txapelketatik laugarren postuarekin, eta kobrezko dominarekin, itzuli da Ibon Mugerza (Tolosa, 1983) surflaria, eta taldeko urrezko domina lortu du Espainiako selekzioarekin. Surf egokitan lehiatzen da Mugerza, stand 1 modalitatean. Moto istripu baten ondorioz, beso-plexuko lesioa izan zuen, eta eskuineko besoan hemiplegia du: beso horretan zein soinean eta bizkarrean ez du sentsibilitaterik.

Munduko Txapelketa batean lehiatzea berezia izango da.

Nire ustez, lehiaketa moduan baino, jendea elkartzeko eta gure artean esperientziak elkarbanatzeko, batzuk besteengandik ikasteko, balio du. Niri behintzat gehiago bete didana da jendea ezagutzea eta jakitea zer egin duten Brasilen, zer egin duten Kanadan, bai entrenamendurako, bai surferako eta baita nire lesioarekiko ere. Ez da erraza zure lesio bera duen jendea topatzea. Txapelketa batera joaten zarenean eta ikusten baduzu aukerak dituzula, irabazten saiatzen zara, baina gehienbat jendea ezagutzeko izaten da. Bueltatzen naizenean gusturago nago eza gutu dudana jendearengatik irabazi dudanarengatik baino. Niri surfa asko gustatzen zait, egunero egin dezaket, eta ez dut dominen beharrik.

Emaitzei dagokionez, zure lorpen handiena izan da?

Europako txapelduna izan nintzen 2019ko maiatzean, eta orain ere horrela geratu naizela esan daiteke. Lehenengo bi sailkatuak brasildarrak izan dira eta hirugarrena Hego Afrikakoa. Ez naiz txapelketetara asko joatekoa. Laugarren geratu naiz Munduko Txapelketa batean, eta finalean sartu naiz: bada zer bait. Baina, batez ere gozatzeraz joaten gara. Azkenean, kostu fisikoa du, baina baita ere sekulako kostua da entrenamenduak egitea maila horretan egoteko. Horregatik eskerrak ematen dizkiot Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako surf federazioei, eta baita Pukas eta beste laguntzaileei ere, jasotako laguntza guztiagatik.

Laugarren postua lortu zenuen, eta kobrezko domina.

Ezustea izan zen niretzat jakitean laugarren postuarekin domina neukala. Laugarren postua normalean esker gutxiak izaten da, domina lortzen duten hurrengo postua delako. Ni, egia esan, kontentu nengon finalera iritsi nintzelako. Finalerdietan disgustiarekin geratu nintzen,

«Txapelketak jendea elkartu eta esperientziak elkarbanatzeko balio du»



Hiru surflari Munduko Txapelketan: Joseba Mercader, Ander Goenaga oreretarra, eta Ibon Mugerza. JOSEBA MERCADER

IBON MUGERZA SURFLARIA

Neke handiarekin itzuli da Ibon Mugerza surflari tolosarra Munduko Txapelketatik, batez ere bidaiak suposatu dion esfortzuarekin. Hori bai, pozik itzuli da bizitakoagatik eta ezagutu duen jendearengatik.

puntuazioa jakin gabe eta pentsatuz kanpoan gelditu nintzela. Gero, taldekoek genuen etxera iristerakoan, puntuazioa begiratu eta konturatu nintzen hurrengo egunean finala nuela.

Nola izan zen txapelketa?

Ez gara hainbeste, zortzi edo berderatzi kirolarik parte hartu genuen. Finalerdiak egin genituen zuzenean eta gero finala. Horregatik esaten dut gehienbat jendea ezagutzea dela. Lau katu gara, eta jende gehiago elkartzen garenean, orduan gehiago arduratuko naiz lehiaketaz. Baina, bestalde, ozen esan behar da horra iristen diren denak izarrak direla.

Finalerdien lehen txandan bertikoa gertatu zitzaidan. Arrankatzea kostatzen zait, erdi urduri egoten naiz, eta ez naiz hainbeste lehiaketaren kontuan sartzen. Gehiago nago txapelketaren muntaia guztia pentsatzen, batekin eta bestearekin hitz egin nahian, eta ez hainbeste lehiarekin. Bigarren txandan hobeto aritu nintzen, eta finalera sartzea lortu nuen. Finalean bai

egon nintzela dena emanda, baina olatuak ez nituen aldeko izan. Egun osoan egon ziren sekulako olatuak; gu sartu eta geratu egin ziren. Nik besteek baino olatu handiagoak behar ditut, taula handiagoko dudalako. Olatu txikiekin besteek sekulako jira-birak egiten zituzten, eta nik olatuaren tamaina handiagoko behar dut nire abileziarako.

Finalean zenbat zineten?

Lau ginen parte hartzen genuen surflariak. Txanda bat izan zen, eta lehenengo hamar olatuak hartzen dizkizute kontuan eta horietatik bi olatu onenak. Txanda ez zen gaizki joan. Lehenengo bi postuetan geratu ziren oso onak ziren, baina hirugarrenarekin hor ibili nintzen lehian. Halere, esan bezala, ez ziren egon nik behar nituen tamainako olatuak. Nire lesioagatik taula luzeago bat behar dut zutik jartzeko, eta horretarako indarra duten olatuak behar ditut, eta baita taula bera mugituko dutenak.

Joseba Mercader tolosarra ere zure maila berean lehiatu zen eta seigarren bukatu zuen.

Txundituta utzi nau. Oso ondo aritu zen. Asko hobetu du uretan eta txapelketan. Pila bat motibatu da txapelketa honetarako.

Espainiako selekzioarekin urrea lortu zenuen Munduko Txapelketan.

Surflari bakoitzak lortutako puntuekin irabazi genuen. Estatu Batuei, Brasili eta Hawaiiri irabazi genien, eta hori handia da. Kontuan izan behar da hamabost kirolari ginela, eta selekzio guztiek ez dutela hainbeste jende ematen. Estatu Batuetako kirolari asko zeuden, eta horiei irabazi genien. Baina, gero selekzio bakoitzak duen gaitasun ekonomikoaren arabera, jende gehiago edo gutxiago joaten da. Espainiako selekzioan jende berria joan da, eta ezusteko handia hartu dut, sekulako txapelketa egin dutelako. Lehen aldia izan da surf egokituan urrezko domina irabazi duela Espainiak munduko txapelketa batean. Esperientzia bezala oso berezia da: asko betetzen zaitu, ikusten duzulako jendea lesio ezberdinekin, eta nola hartzen duten hau guztia.

Eta horrek pila bat balio du, ez du preziorik.

Nola izan zen joan-etorria?

Kasu honetan Espainiako Federazioak jarri du dirua eta konfiantza ere bai haraino joateko. Bidaia eta egonaldia federazioak ordaindu du. Bi etxe hartu zituzten han, eta horietan sartu ginen kirolari guztiak. Bertan elkarbizitza landu genuen, eta denok egin behar izan genuen lan jatekoa prestatzeko eta etxea txukun mantentzeko.

Itzulia gorabeheratsuagoa izan zen. Hegaldi bat bertan behera gelditu zen. Gero beste bat hartu genuen, baina galdu egin genuen hegaldi hori immigraziozko paper bat ez genuelako bete. Hurrengo egunean beste bat jarri ziguten ekonomikoki askoz gehiago kostatu gabe. Hori hartu genuen, baina San Diego-New York, New York-Londres eta Londres-Madril egin behar izan genuen. Eta hori dena egitea ia hiru metroko funda bat soinean, hiru taularekin... Hori mugitu behar izan nuen Joseba Mercader tolosarrarekin batera. Gero eskuko maleta, motxila txiki bat, trajea kanpoan gehiegizko pisua eman zidalako... imajinatu zer-nolako abentura.

Eta koronabirusaren ingurukoak nola bizitu zenituzten?

Gu AEBn lasai asko geunden. Madrilerira iritsi ginenean *flipatu* egin genuen egoerarekin. Orain AEBn askoz okerrago daude. Txapelketan parte hartu genuen kirolari guztien orri bat daukagu eta hor hasi dira hitz egiten ea norbaitek baduen sintomarik edo. Behintzat erantzun dugun guztietatik inork ez du sintomarik. Zentzu horretan lasaia, beste kezka bat zelako Munduko Txapelketan kutsatu eta gero gurasoak kutsatzea. Azkenean, gehiegizko abentura izan da orotara.

Hemendik aurrera zer asmo?

Txapelketa eta gero Zarautzera etorri naiz, eta gurasoekin nago. Azken egunetan sekulako olatuak daude Zarautzen, eta inor ez uretan. Hori ez da behin ere ikusi. Ni txapelketatik oso nekatuta itzuli naiz, sekulako tendinitisarekin ezkerreko besoan. Ez zait ari gaizki etortzen konfinamendua, berreskuratzeko. Txapelketei dagokionez, abuztuan Hego Afrikan badago txapelketa bat. Nazioartekoa da, baina irekia, hau da, ez da zertan selekzioarekin joan behar. Asko pentsatu behar dut, lan aldetik orain arteko egoerarik onenean bainago, eta ez dut nahi parte hartu horrelako txapelketetan ez badit ekonomikoki alderik suposatzen.

Olinpiar Jokoak atzeratuta, Arrospiderentzat aukera berria

Urtebete itxaron beharko da Tokion Olinpiar Jokoak egiteko. Iraitz Arrospide maratoi korrikalari billabonatarrak ondo ikusi du atzeratzearen erabakia.

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Tokioko Olinpiar Jokoak urtebetez atzeratu dira, Covid-19 dela eta mundu mailan ezarritako osasun larrialdiagatik. Tokiora joateko aukera izan duenetako bat Iraitz Arrospide atleta billabonatarra da. Gutxieneko marka lortu zuen maratoiko proban, baina selekzio bakoitzetik hiru korrikalari joaten dira, eta oso zaila zuen hautatua izatea. Olinpiar Jokoak atzeratzea ondo hartutako erabakia dela dio Arrospidek. Bide batez, Tokion parte hartu ahal izateko berari aukera bat zabaldu zaiola ikusten du.

Arrospidek garbi ikusten du Olinpiar Jokoak aurtan egin izan balira, «jendeak ezin izango lituzkeela ondo prestatu. Diziplina askotan oraindik gutxieneko denborak egiteko eta sailkapenak lortzeko aukerak ere bazeuden. Beraz, garbi zegoen egokia zela atzeratzea. Orain ikusi egin beharko da zein egunetan jaritzen dituzten datorren urtean». Hain justu, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak atzo zehaztu zuen 2021eko uztailaren 23tik abuztuaren 8ra egingo direla jokoak.

Maratoiko proba zeintzu joango ziren nahiko definituta zegoela azaldu du Arrospidek. Bi plaza irizpide jakin batzuk medio banatu ziren. Bat, Munduko Txapelketan lortutako emaitza-rengatik, eta bestea, Espainiako Txapelketa irabazteagatik. «Hi-



Iraitz Arrospide, korrika egiteko zintan. ATARIA

rugarrena emateko zegoen, baina bazirudien Hamid Ben Daoud izango zela, oso denbora ona egin baitzuen Espainiako Txapelketan», esan du Arrospidek. «Gertatzen da maratoia oso diziplina gogorra dela, eta gertatu daiteke lesio bat-edo izatea, eta orduan laugarren edo bosgarren batek ere prest egon beharra iza-

ten du norbaitek huts eginez gero. Nire aukerak nahiko urriak ziren, baina hor nengoen zain». Erabaki horren zain zeudela iritsi da koronabirusaren inguruko egoera, eta guztiz geratu da.

Datorren urteari begira zer gertatuko den ez dago argi. «Baliteke lehen bi plaza horien irizpidea mantentzea, baina hiruga-

rren plazarako nik uste dut aukera izango genukeela, berriz ere beste maratoi bat eginez sailkapen horretan postuak igo ahal izateko», zehaztu du Arrospidek. Oraindik ofizialki ez dagoela ezer erabakita nabarmendu du billabonatarrak. Hori bai, egoera honek berarentzat beste aukera bat suposatuko duela dio, berriz ere beste maratoi bat egin eta marka hobetzen saiatzeko. Urtebete «gauza asko» gertatu daitezkeela esan du Arrospidek. «Urte eta gehiago izango da, eta gauzak onerako eta txarrerako aldatu daitezke. Ez dakigu nola geratuko diren gauzak, baina nik aukera bat zabaldu izana bezala hartzen dut».

Kirolarien artean orokorrean oso ondo hartu dela Olinpiar Jokoak atzeratzea uste du Arrospidek. «Baliteke kasu batzuetan ezezkoan egotea, batez ere erretiroa hartzekotan zeudenak. Urtebete atzeratzea baliteke kaltegarria izatea beraientzat. Baina maratoiaren kasuan nik uste dut denek ondo ikusi dutela, eta, noski, plaza hori irabazia zutenek espero dute mantentzea».

EUSKAL HERRIARI ADI

Ingalaterran bizi da egun Arrospide, Sheffield hirian, bere familiarekin. Unibertsitatean doktoretza egiten ari da bertan. «Gu lehenago ohartu gara zetorren egoeraz, bertakoak baino», esan du. «Adi geunden Euskal Herrian eta Espainian zer gertatzen

ari zen, eta nahiko jabetuta geunden, hona iritsi aurretik. Eta ingelesak, berriz, bertara iritsi arte eta kasuak igotzen hasi arte, ez dira gehiegi arduratu». Horren adibidea da aurreko asteburura arte Arrospideren taldekideak taldeko entrenamenduak egiten ari zirela. «Nik egun batzuk neramatzan taldeko entrenamenduak egin gabe ordurako. Aurreko astelehenean eman zuten agindua etxetik ez ateratzeko eta ordura arte jendea bizitza normala egiten eta lasai asko zebilen, nahiz eta jakin zer zegoen», esan du.

Etxean geratzeko agindua dago Ingalaterran, baina aukera dute egunehin behin etxetik ateratzeko kirola egitera edo paseoan ibiltzera, inorekin ez elkartzeko baldintzarekin. Arrospidek etxean korrika egiteko zinta du eta egun bi aukerak baliatzen ditu. «Etxetik ateratzerakoan arduratsu izaten saiatzen naiz, eta ez naiz hiri barrura joaten, kanpora joaten naiz, inor ez dabilen lekura. Bestetik, zintarekin tarte-katzen dut entrenamendua, ziur aski laster galaraziko dutelako etxetik kanpora ateratzea, eta orduan egunero zintan entrenatu beharko dut, eta hobe da pixkana ohitzen joatea».

Arrospide etxetik ari da unibertsitateko ikerketa lanak egiten, eta, bestalde, haurra zaintzen. «Haurtzaindegiak itxita daude eta nire emazteak ospitale batean egiten du lan. Ez da erraza bateratzea etxean lan egitea eta haurra zaintzea».

Lasterketa garrantzitsurik ez zuen egun hauetan egutegian, eta zentzu horretan ez dio ezohiko egoerak hainbeste eragin: «Ziurrenik, bestela ere izango zen moduan, urte bukaerarako maratoi bat planteatuko dut marka on bat egiteko. Saiatuko naiz entrenamenduekin jarraitzen eta oinarri handi bat egiten ordurako».

Hilberriak eta urteurrenak

Atarian jarrita
Gipuzkoako
2 Hitzetan
DOAN

ESKELAK •
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte
hartzen ditugu



DIONI GERRIKO IMAZ

(Ramon Amonarrizen alarguna)
Martxoaren 28an hil zen 91 urte zituela.

Seme alabak: Begoña eta Juan Mari (†), Lurdes eta Pedro, Ramon eta Marisol, Maite eta Mikel, Mikel eta Mila, Arantza eta Jose Luis. Bilobak: Julen, Marta, Ane, Maddi, Garazi eta Sara. Zaintzalea: Hazol. Koinatu-koinatak, ilobak, lehengusuak, eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta gaur egungo egoera dela eta, hileta elizkizunak aurrerago egingo dira.

TOLOSAN, 2020ko martxoaren 31an



Dionisia Gerriko Imaz

Ramon Amonarrizen alarguna

- Goian bego -

Gerriko Erauskindar ilobak: Juan eta Mertxe Iriarte (†), Maite Otegi, Maria Jesus eta Fermin Aristondo (†), Migel eta Maria Jose Urretabizkaia, Arantxa (lekaime), Maria Nieves eta Tomas Berasategi, Joxemari (†), Benito eta Edurne Apalategi, Maitere eta Bixente Urteaga, Rafael eta Isabel Fariñas, Ramon eta Feli Murgiondo.

Izebaren etxeko ateak, guretzat zabalik zeuden beti...
Hori ez dugu ahazten.... Eskerrik Askoooo!!!

SEGURA - TOLOSAn, 2020ko martxoaren 31n



ASTEARTEA, 2020KO MARTXOAK 31
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Ilargiak galtzak nahi zituen Lurreko biztanleen moduan.

Ahoz-Aho Ipuinak ez dira geldituko ekimena etenik gabe ari da egunero ipuin berriak jasotzen; Idoia Gereñu tolosarrak ilargiari buruzko ondorengo ipuinarekin hartu du parte.

Ilargiaren prakak

Aizu, amatxo, prakak eduki nahi ditut. Lurreko biztanleek erabiltzen dituztenak bezalako prakak eduki nahi ditut.

- «Ongi da, alabatxo —erantzun zion amak— Zoaz jostunarengana eta esaiozu neurriak hartzeko».

Joan zen, bada, Ilargia jostunaren etxera. Hark neurriak hartu zizkion eta handik bost egunera itzultzeko eskatu zion. Bost egun igarota, han joan zen Ilargia jostunaren etxera lasterka bizian. Prakak jantzen hasi zen

baina ezin: laburregi eta estuegi zeuzkan.

- «Dirudienez, erratu egin naiz», pentsatu zuen jostunak bere arterako, eta neurriak hartu zizkion berriro.

- «Itzuli bost egun barru» —esan zion Ilargiari.

Ilargia bost egun geroago itzuli zen, prakak jantzi eta berriro gauza bera gertatu zitzaion: laburregi eta estuegi zeuzkan.

Jostunak berriz ere neurriak hartu, handik bost egunera itzultzeko eskatu eta, beste barik, lanari ekin zion. Bost egun haiek igaro ziren. Jostunak prakak

amaitu zituen baina Ilargia bere etxera sartzen ikusi zuenean... ez zuen jantzi beharrik izan: bazezien ez zituela sekula ondo edukiko, une hartan Ilargia gazta bezain biribila baitzen.

Jostuna etsita zegoen erabat: - «Ezin dizut prakarik egin, Ilargi, orain laurdena, gero erdia eta ondoren osoa zaudelako. Neurri asko hartu arren inoiz ez dituzu prakak ondo edukiko».

Horrexegatik geratu zen Ilargia prakarik gabe eta horrexegatik dago oraindik ere biluzik.

Dena dela Ilargia, jantzita ala biluzik, beti eder.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Larramendi, 6 behe 1. 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA

09:00-13:00. Baserritik, Postalak bidaia tarte, Entzuteko jaioak, Gure Txokotik elkarrizketa tarte eta Mestibull DJ Bullekin musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
19:00. Ahoz-Aho Ipuinak ez dira geldituko.
20:00. Mailu ta akuilu. Musika saioa.
21:00. Mingaina Txulora. Erotikari buruzko saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Elkarrizketa (Koldo Ota-mendi)
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:15. Leihotik begira (Berastegi)
22:45. Errezeta beganoa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Negu-giroarekin jarraituko dugu. Goizaldean sartuko den fronte batek hodeitza eta euria ere ekarriko dizkigu. Euria arratsaldeko lehen orduak arte izango da. Ondoren, atertzen hasi eta gauerako giro lasaigoa geratuko da. Botatzen duena egunsentian elurretan izango da 300 metrotik gora, baina ondoren azkar batean egingo du gora elur-mailak. Tenperaturak hotzak izango dira eta ez dira 7 eta 9 gradu artetik pasako.

Bihar. Dezente epelduko du. Hego-ekialdeko haizeak termometroeia gora eraginarazi eta balio maximoak atseginak izango dira, eguneko erdiko orduetan 13 eta 15 graduan joz goia. Zeruaren hodei asko izango dira eta tarteka zaparradaxkaren bat izango da, bereziki arratsaldean. Hala ere, euri gutxi botako du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

Koronabirusak sortutako Alarma Egoeraren aurrean 'Tolosaldeko Ataria'-k informazioa ematen jarraituko du.

'Ataria'-rekin kontaktuan jarraitzeko ondorengo bi bide hauek daude:

Telefono zenbakia: 943 65 56 95

Whatsapp: 687 410 032

Emaila: ataria@ataria.eus

*Bulegoan ez da aurrez aurreko bisitarik onartuko.